



Kurutziaga Gurutzea (Durango)

Durangoko Kurutzia Gurutzea paragabea da bere ezaugarriengatik. Bere tamainaz eta egiteko kalitateaz gain, behe-erdi aroan izan behar izan zuen esanahia kontuan hartzekoa da. Nahiz eta gurutzeek, arbolek antzinan bezala, lurrak mugatzen zituzten edota bidegurutzeak sakralizatzen zituzten, ez da zalantzazkoa gurutze honek Hiribildurako esanahi berezia duelako hipotesia. Nahiko ziurra da gurutzearen sinbolismoa Begardoen heresiarekin lotuta dagoela, heresia horrek XV. mendearen bukaeran Durangaldea astindu zuen eta ondorioz errepresioa ekarri zuen.

Gurutzeak, hareharri ilunean zizelatuak, 4,30 metroko altuera dauka. Plintoa ez da jatorrizkoa, baina gainontzeko elementuekin bat dator. Horren gainean giderra dago, aldeetan gizakien irudiak landuak dituena, 1,15 metrokoa. Bertan emakume baten burua duen Paradisuko sugea kiribiltzen da. Hurrengo elementua 0,9 metroko kubo bat da. Bere alderdi batean, ongiaren eta gaizkiaren zuhaitza aurkitzen dugu. Kontrako aldean, Paradisutik kanporatzea. Besteetan Evaren Tentazioa eta Adanen Pekatua, hurrenez hurren. Gorago dagoen hurrengo atalean, zilindro batean, aposulutza osoa landuta dago, eta ikur identifikadore batzuk oraindik argi ikusten dira.

Goiko atala garrantzirik handiena duena eta kalitaterik handiena erakusten duena da. Atzealdean Paradisuaren errepresentazio bat agertzen da: Maria eserita umea duela eta bere alboan Santa Barbara (bere dorreaz), Santa Katalina (hortzdun gurgilaz) eta ezagutzeko zailak diren beste bi Santu. Haien guztien gainera, landareen apainagriak, organoen tutuak eta aingeruak musika tresnak jotzen. Atzealdean kalbarioa dago. Bertan dagozkion elementu guztiak daude: Gurutziltzatuak, Andra Maria doloretako, San Juan, Golgotako garezurra eta tibiak, Adanen Hilobia, baita Kristoren zaurien odola biltzen ari diren lau aingeru. Baina erreliebe horren bitxiena Gurutziltzaketaren gainean Eguzkia eta Ilargia agertzen diren bi Clipeo egotea da. Bi aingeruk eusten diete eta beste bik astroei koroa jartzen diete. Eguzkia-Ilargia bikotea - argi eta garbi jatorri paganokoa- ez da arraroa erdi aroko artean, baina hemen oso garrantzitsua da gurutziltzatuarekin zuzenean erlazionatzen baita. Eguzkia=Kristo, Ilargia=Eliza sinbologia Gurutzearen bidezko Erredentzioarekin nahasten da. Kristoren argia eta Ilargiarena (Kristorena baita baina isladatuta) Heresiari irabazten dio.

Gurutzea izen bereko errabalean egon da beti; antzinan Vera Cruz basilizaren ondoan eta gaur egun lorategi baten erdian. Amaierako gotikoko behe-erdi aroko gurutzadura den heinean Bizkaiko ezagunena da.

Testua: Ana Isabel Leis Alava.



Kurutziaga Gurutzea

Durango. (*Kurutziaga kalean. Durangoko alde zaharraren ondoan, Andra Maria elizatik oso hurbil.*)

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Durango)

- Uribarriko Andra Mari eliza.
- Udaletxea.
- Santa Ana eliza.
- Etxezarreta Jauregia.
- San Agustin Komentua.